



2. KALE ANIMAZIOA ETA MUSIKA

Musika	<p>EUSKAL MUSIKA SUSTATU: garrantzia berezia eman behar zaio, bai orkestretan, bai Okendo plazako programazioan,... Okendon euskal musika ziurtatu, beste urte batzuetako esperientzia ikusita oso ondo funtzionatzen du eta herria girotzen du. Andatza eta Isla plazako orkestrak ere bai, euskal kantak jotzen dituztela ziurtatu. Dantza egiteko musika jo behar dute. Publiko murrizta mugitzen dute, aurrekontuan ere nabaritu behar da hau (gutxiago gastatu). Kalitatezko euskal musika sustatu behar da ekitaldi handietan. Trikitixa Okendon ondo legoke.</p>
	<p>MUSIKA GUZTIENTZAT, HAUR, GAZTE, HELDU, FAMILIA,...: gazteentzat gaueko kontzertuak mantentzeaz gain, erromeriak arratsalde partean ere hasi daitezke, 19.00etatik 21.00etara, horrela publiko zabalago, familiarrago batengana heltzeko. Afalostean, 23.00etan edo jarraitu dezake, eta gero kontzertuak egin.</p>
	<p>FESTA GIROTU: kontzertuak hasi aurretik, adibidez, animatzaileak egon daitezke behean jendea girotzen. Ibiliko dantzak eta mota horretako ekitaldi girotuak ere antolatu daitezke.</p>
Kale animazioa	<p>HERRIKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA SUSTATU FESTETAN: txaranga-pote, pintxo-potea, txalaparta-potea,... tabernaz taberna. Egunero sustatu beharko lirake horrelako ekimenak.</p>
	<p>KALE GIROA SUSTATU: kale animazioa zabaldu eta pisu gehiago eman. Elektrotxaranga, batukadak,... kalea girotzen duten ekintzak. Jende asko biltzen dute horrelako ekintzek. Mugikorrak behar dute izan, ez finkoak.</p>
Barrakak	<p>EUSKAL MUSIKA: zaila bada ere, beste herri batzuetan egiten den moduan, euskal musika ere jartzera behartu. Ziurtatzea zaila bada ere, eskatuta gabe baino gehiago jarriko dute.</p>
Kokapena	<p>AUZOETAKO JENDEA FESTARA GEHITU: festen gune</p>



	<p>nagusia Okendo izan behar da, baina inguruko auzoetako jendea bertara gerturatu behar da. Horretarako, batukadak, txarangak,... itzulua egin dezakete, Okendotik hasi, auzoetara joan eta Okendon bukatu.</p>
	<p>ALDI BEREKO EKITALDIAK: errepikatzen badira, publiko ezberdinarentzat izan daitezela, eta toki ezberdinetan planteatuta.</p>
Bestelakoak	<p>PROGRAMA ZABALDU: garrantzitsua da, eskuko programaz gain, bestela ere ekintzak ondo zabaltzea, herritarrak jakitun izan daitezen. Kartelak,... erabiltzeaz gain, Maratoiean egiten den moduan, kamioi bat pasatu daiteke heritik hau iragartzen, adibidez.</p>